

DESKRIBAPENA

Guk eskaintzen dugun produktuak, zinta kinesilogiko tradizionalaren eta teknologia aurreratuaren arteko konbinazio eskaintzen du; lesioak prebenitzeko eta tratamenduak hobetzeko helburuarekin. Errendimendua eta mugimendua hobetzeko diseinatuta dagoen gailu berri hau, bakoitzaren mugimendu akatsak identifikatu eta hobetzen ditu. Ezin hobea da kirolarientzat eta egunorokotasunean mina sentitzen duten pertsonentzat.

Ezagutu ezazu kirol munduko gailu aurreratuena KINECH-PRO-rekin

1. BALIO PROPOSAMENA

Betidanik kirolean lesioak izan dira, eta askotan kirolariek hilabete luzez geldirik egon behar izan dute lesio horien ondorioz. Egoera horri aurre egiteko, gure produktua sortu dugu: **KinechPro**.

Produktu honek lesioen prebentzioan iraultza ekarri nahi du, eta horretarako, teknologia aurreratu eta kinesilogiako zintak erabiltzen ditu. Nola funtzionatzen du? Artikulazioetan kinesilogiako zintak aplikatzen ditugu, eta zinta horien barruan txip adimendun bat txertatzen da. Txip honek artikulazioen mugimenduak aztertzen ditu eta detektatzen du mugimendu desagokirik badagoen. Detekzio hori oinarri hartuta, txipak informazioa biltzen du, eta ondoren, datuak ordenagailu batera transferitzen dira.

Horrela, preparadore fisiko edo fisioterapeuta batek mugimendu okerrak identifikatu eta zuzentzeko aukera izango du, kirolariaren teknika hobetuz eta lesioak ekidinez. KinechProarekin, lesioen prebentzioa eta errehabilitazioa modu eraginkorragoan egin daiteke, kirolarien errendimendua eta ongizatea nabarmen hobetuz.

KONPONTZEN DITUEN ARAZOAK

Giharretako eta artikulazioetako minaren euskarria eta arintzea: Zintak egonkortasuna ematen du eta karga murrizten du lesionatutako eremuetan, odol-fluxua hobetuz mugimendua mugatu gabe.

Denbora errealean monitorizatzea, zintak datu biometrikoak denbora errealean biltzen ditu, tenperatura, presioa eta muskulu-uzkurdura barne, eta hori funtsezkoa da ariketa edo errehabilitazioan zehar egoera fisikoa ebaluatzeko. **Minaren edo lesioen kokapen zehatza,** bildutako datuek tentsio- edo eragozpen-eremu espezifikoak identifikatzea ahalbidetzen dute, tratamenduak doitzeko diagnostiko azkar eta zehatzak eginez. **Mugimenduen zuzenketa,** mugimendu desagokiak aztertzen eta detektatzen

ditu, eta jarrera eta teknika hobetzen laguntzen du, etorkizuneko lesioak prebenitzeko. **Prebentzio- eta hobekuntza-plangintza**, etengabeko datuek entrenamendu edo errehabilitazio plan pertsonalizatuak sortzen laguntzen dute, emaitzak hobetuz eta berriro erortzeko arriskua minimizatuz.

BESTELAKO INFORMAZIOA

Kalitatea lehen mailakoa izango da. Txipa innobadorea da eta tirak lehen mailako kalitatekoak dira.

Diseinua ergonomikoa izango da eta edozein kirol egiteko ahalmena.

Produktu berritzaile honek fisioterapiako teknologia eta ezagutza uztartzen ditu, zinta kinesiológico konbentzionalen erabileratik haratago doan euskarri integrala eskaintzeko.

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Produktua aztertu ondoren, hiru erosle talde nagusi daudela ikusi dugu.

Hasteko, beraientzat pentsatuta dago produktua, hau da, kirolariak.

Baita ere, eguneroko bizitzan mina edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonak izango dira bezero nagusiak.

Azkenik kirolean adituak diren fisioterapeutak produktua erosteko interesa izango dute.

Hasieran, produktua, euskal erkidegora zuzenduta egongo da hau da, eremu horretan egingo dira produktuaren bidalketak.

Adina: Adin konkretua egongo da hau erabiltzeko, 17 urte baino gehiago dituzten gazte kirolariek gure bezeroak izango dira, baina baita ere, pertsona helduentzat, artikulazio eta muskuluen arazoak prebenitzeko eta pertsona nagusiak mugikortasun arazoak dituztenak arazo horiek konpontzen saiatzeko eta lesio berriak aurreikusteko.

Maila sozioekonomikoa: Produktua, ez da oso garestia izango maila ekonomiko erdi-altua duten pertsonentzat.

Produktu honen, bezero nagusia kirolariak izango dira eta baita ere, kirolarekin zerikusia duten fisioterapeuta. Produktua, beraientzat dago zuzendua batez ere, izan ere, kirolariek izaten dituzte lesio gehien sufritzeko arriskua eta produktuarekin posturak eta mugimenduak hobetuko dituzte lesio berriak ez sufritzeko.